

Ikastetxearen
Elkarbizitza
Plana

2024/2029

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
1.1 Ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua.	2
1.2 Ikastetxeko bestelako dokumentuekin duen lotura.	2
2. ELKARBIZITZAREN DEFINIZIOA	3
3. PLAN HONEN HELBURUAK	4
4. IKASTETXEAREN ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA	4
5. HELBURUEN LORPENAK SUSTATZEKO EGITURAK	6
5.1. Elkarbizitza Behatokia	6
5.2 Elkarbizitza Batzordea	7
5.3. BAT taldea	7
5.4. Tutore/Irakasle bilerak	8
6. JARDUTEKO IRIZPIDE OROKORRAK	8
7. ELKARBIZITZA PLANA AURRERA ERAMATEKO JARDUERAK	9
7.1 Elkarbizitza giro on bat sustatzeko jarduerak. Aniztasuna baliotzat hartzen	9
7.2 Berandu eskolatzen diren ikasleentzat harrera plana	9
7.3 Gatazkeei eta berdinen arteko jazarpenari aurre hartzeko printzipioa: probentzioa	10
8. ELKARBIZITZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	11
9. ERANSKINAK	11

1.SARRERA

Elkarbizitza plana, ikastetxeko bizikidetza kudeatzeko dokumentu garrantzitsua da. Bertan, lortu nahi ditugun helburuak eta hauek lortzeko aurrera eramango diren ekintzak zehazten dira.

Elkarbizitza plana dokumentu estrategikoa da, zentroan bizikidetza positiboa garatzeko nahia agertzen da. Hobekuntza Plana bost urtera begira bezala planteatzen da, zeinetan hasierako diagnostiko batetik abiatuta helburu batzuk ezartzen dira eta helburu hauetara heltzeko beharrezko ekintzak diseinatzen dira. Bere ebaluazioa Urteko Memorian islatuko da.

1.1 Ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua

Zaraobe, Amurrión kokatutako zentro integrala da, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ematen dira. Bizikidetzaren garrantzia ikastetxeko ikuspegian islatzen da. Zaraobe institutuak, elkarbizitza zibiko eta eskola komunitatearen ongizateak, eskualdean hezkuntza euskaldun erreferentea eta inguruarekin arduratsua izan nahi du.

Azken urteetan, hezkuntza komunitateak (autobusean, jantokian, patioetan, Hedatzen, Bidelagunean, ikasgela barruan...) bizikidetza hobetzea behar-beharrezkoa dela sentitzen du.

Helburu honen lorpenerako sentsibilizazio (kontziente izan behar dugu, harreman egokien garrantziaz) eta diagnostikotik (zeintzuk diren arazo nagusiak, puntu beltzak, hobetu beharrekoak, etab.) abiatu gara.

1.2 Ikastetxeko bestelako dokumentuekin duen lotura

Dokumentu hau ikastetxeko **AJA** (Araudia eta Jarduera Antolakuntza) eta IUP-arekin (Ikastetxearen Urteko Plana) lotuta dago.

Tutoretza Planaren bitartez landuko dira ikasleekin planteatzen diren jarduerak.

AJAren sarreran, irizpideak azaltzen dituenean (“Sarrera. Xedapen orokorrak”), Elkarbizitza Planaren garrantzia aipatzen da. Araudia plan honen filosofiarekin bat datorrela irakur daiteke.

2. atalean ere “Ikastexea kudeatzeko tresnak” deiturikoan Elkarbizitza Plana azaltzen da.

Ikastetxeko Urteko Planean ere lekua du plan honek tutoretza planean txertatuta baita elkarbizitza egoki bat sustatzeko curriculumaren barruan irakasle guztiek landuko duten zeharkako kompetentzia bezala ere: elkarbizitzarako gaitasuna, elkarrekin bizitzen ikastea.

Tutoretza planean elkarbizitza egoki bat sustatzeko jarduerak ezartzen dira ikasturte osoan zehar maila guztietan.

2. ELKARBIZITZAREN DEFINIZIOA

Beste pertsonekin espazio edo ingurune bat partekatuz bizi behar dugu. Gure ikastetxean harreman positiboak gauzatzea da gure helburu nagusia. Horretarako, ezinbestekoa da hori ahalbidetuko duen kode etikoa haintzat hartzea. (AJA-n idatzirik dago).

Gaur egun elkarbizitzarako espazioak errealak izateaz gain birtualak ere badira. Nerabeen arteko harremanen ehuneko handi bat sare sozialak erabiliz egiten dira. Beraz, bi definizio ditugu gaur egun: orain arteko elkarbizitza, aurrez-aurrekoa dena eta sare sozialak erabiliz gauzatutakoa, ziber-elkarbizitza deituko dioguna.

Ziber-elkarbizitza egoera berria da eta aparteko zailtasunak ditu kudeaketa egoki bat aurrera eramateko. Era egoki batean kudeatzeko asmotan eramateko elementu hauek kontuan hartuko ditugu:

- Tresnak eta plataformak: Hezkuntza sailak eskeinitako ordenagailuak eta plataformak soilik erabiliko dira (classroom-a, moodle plataforma, ikastetxeko e-posta...).
- Pribatasuna eta segurtasuna: Ikasleek ez dute inola ere trukatu edo erabiliko ez dagokien gailua. Era berean, ez dute beste ikaskideen pasahitzik edo posta-konturik trukatu. Ikastetxeak sortutako posta-kontua esleitutako erabiltzaileak soilik erabil dezake, eta irakaskuntza-lanetarako baino ez dute erabiliko. Identitate digitala usurpatzea delitua da.
- Komunikazio esanguratsua: Komunikazio kanalak (e-posta eta Inika) eta protokoloak erabiltzaile guztiek ondo ezagutu behar dituzte. Irakasleek harrera planaren bidez eta asteroko tutore bileretan, eta ikasleek tutoretza saioetan.
- Gatazken kudeaketa: Gatazkak sortzekotan ikasleen adina kontuan hartuko da, adin txikikoak badira gurasoen inplikazioa ezinbestekotzat jotzen dugu. Irakasleek gurasoei jakinaraziko diete egoera eta horren kudeaketa guztien artean burutuko da. Nagusiak direnek ikastetxeko AJA errespetatuko dugu.

3. PLAN HONEN HELBURUAK

Bi helburu nagusi izan ditugu orain dela lau urte egindako plana berritzerakoan:

1- Ikastetxeko elkarbizitza giroa aztertu ondoren, giro hobeago bat lortzea eskolako komunitate osoan, hau da, guraso, ikasle, irakasle eta irakasle ez diren langileen artean.

2- Aniztasunari behar duen garrantzia emanez, berdinen arteko harreman desegoki eta tratu txarrei aurre hartzea.

Ikastetxean ikasleen eta irakasleen parte-hartzea sustatu, honetarako beharrezkoak diren esku-hartzeak sistematizatuz.

Elkarbizitza egoki baterako funtsezko konpetentziak arlo eta materia guztietan landu eta ebaluatzea.

4. IKASTETXEAREN ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA

Atal hau osatzeko ikasle, irakasle, ez irakasle eta familien iritziak jaso nahi izan ditugu.

Nahiko antzeko galdetegiak prestatu genituen hauen sentsazioak jakin nahian, beti ere, orain arte egindakoa hobetzeko helburuarekin.

Orokorrean erantzun kopuru handia eta desberdin izan dugu eta zaila da lerro gutxi batzuetan guztiaren laburpen egoki bat egitea.

Hona hemen datu esanguratsu batzuk:

Ikasleak:

Ikasleei bidalitako galdetegien emaitzak aztertzerakoan lau ataletan jarri dugu arreta gehien. Hauek izan dira elkarbizitza aztertzerakoan garrantzitsuenak:

1-Ikasleak ikastetxera gustura eta pozik etortzen diren,

2- Ikastetxea leku lasaia eta segurutzat hartzen duten,

3- Ikasleen arteko harremanak nolakoak direla pentsatzen duten,

4-Arazoren bat izan ezker ikastetxean laguntza jasoko duten.

Erantzun gehienak baikorrak izan dira. Ikastetxe nahiko seguru batera pozik etortzen dira. Beraien arteko harremanak nahiko egokiak dira eta laguntza jasotzen dute zailtasun bat dutenean.

Gehien erantzun dutena “askotan” izan da.

Aipatu behar, gelaz gela tutore bakoitzarekin hausnartu direla galdetegien emaitzak. Erantzunak ikasleengana bueltatu dira hobetzeko proposamenak lortzeko helburuz.

Familiak

Partaidetza oso eskasa izan da, ehun bat gurasok soilik erantzun dute, batez ere DBH 1 eta 3koek. Onartzen dute ikastetxeak planteatutako ekintzetan normalean ez dutela parte hartzen. Datorren ikasturteari begira Inika eta kurtso hasierako tutore bilerak erabiliz AMPAn parte hartzera animatuko ditugu.

Balorazioa baikorra izan da orokorrean. Bizikidetza egokia dela pentsatzen dute. Seme-alabak errespetuz tratatzen ditugula esan dute eta irakasleek ondo egiten dutela lan. Aniztasunari ondo erantzuten zaiola ere aipatzen dute.

Irakasleak

Partaidetza eskasa izan da, heren batek bakarrik erantzun du. Hauen erdiek ikastetxea ikasle eta irakasleentzako leku segurua dela erantzun dute.

Irakaslegoaren erdiek irakasle-ikasle harremanek errespetuzko giro egokia sortzen dutela uste du, bi-herenek (askotan) zuzendaritza taldeak irakaslegoa kontuan izaten duela erabakiak hartzerakoan. Irakaslegoaren erdiak ikastetxera beti gustura datorrela adierazi du.

%89k ikastetxeak aniztasunari erantzun egokia ematen zaiola uste du, %57,5ek familiek askotan irakaslegoaren lana baloratzen dutela adierazten dute, eta %6,8k familiek inoiz ez dutela baloratzen irakaslegoaren lana aipatu du.

Arreta deitu digun adierazlea ondokoa izan da; ikasleen arteko jarrera desagokiak inoiz er dituztela ikusten irakaslegoaren erdiak erantzun du, eta antzeko portzenntaiak ikasleen arteko jarrera desagokiak ikusten dituztela. Jarrera desagokiak ikusten dituztenean esku hartzen dutela esan duen irakaslegoaren portzentaia %54,8koa izan da. Honekin lotuta irakaslegoaren %80ak ikasleen arteko harremanetan jarrera desagokiak ikusten dituztenean esku hartzen duela adierazi du.

Ikastetxeko bizikidetza arauak egokiak direla eta geletan ekintza desberdinak planteatzen direla bizikidetza egokia sustatzeko aipatu irakaslegoaren %90ak.

Irakasleak ez diren langileak

Hauen erantzunek hobetu behar diren atal batzuk aipatzen zituzten. Alde batetik, ikastetxeko beste estamenduekin komunikazioa eta koordinazioa

hobetzearen beharra. Bestalde, ikasle kopuru dexente baten beraiekiko errespetu faltaren aurrean emandako erantzuna.

Eskaera hauen aurrean planteatu dira, jada, neurri berriak. Zuzendaritzak kanal eta prozedura berriak planteatuko ditu komunikazio/koordinaziorako, hilabetero bilera bat egongo delarik.

Errespetuari dagokionez ikastetxeak planteatuta dituen erabilera arauak argi azalduko zaizkie bai gurasoei bai ikasleei ikasturte bakoitzaren hasieran. Zuzendaritzako kideren bat bazkaltzen geratuko da noizbehinka egoera aztertu eta giro ona bermatzeko helburuz.

(galdetegiaren erantzun guztiak eskuragarri daude hauek osotasunean ezagutzeko interesa duenarentzat: ikasle, guraso ala irakasle *).

5. HELBURUEN LORPENAK SUSTATZEKO EGITURAK

5.1. Elkarbizitza Behatokia

Elkarbizitzaren Behatokia da ikastetxeko eta eskola-komunitateko elkarbizitzaren inguruko helburu edo jarduerak erraztu, sustatu, garatu eta ebaluatzeko erreferentziazko egitura edo organoa.

Elkarbizitza Behatokiak helburu hauek izango ditu:

- Errespetuan eta elkarriketan oinarrituriko elkarbizitza sustatzea.
- Elkarbizitzari buruzko ikuspegi globala ezarri, eta prebentzio jarduerak eta hobekuntza-neurriak proposatzea.
- Elkarbizitzaren azterketa, balorazio eta jarraipenerako jarduerak garatzea.

Funtzioak honako hauek izango dira:

- Elkarbizitza planaren jarraipena eta ebaluazioa.
- Harremanak hobetzeko, gatazkak eraldatzeko eta bizikidetzaren osasungarria lortzeko iritziak eta iradokizunak jasotzea eta bideratzea.
- Ikasleen arteko gatazken berri jasotzea.
- Irakasleen eta ikasleen arteko gatazken berri jasotzea.
- Arrisku-faktoreak identifikatzea eta ekintza eraginkorrak proposatzea.
- Bizipen eta esperientzia egokien iritziak bertaratzea.
- Prestakuntza arloko jarduerak proposatzea.
- Urteko planeko elkarbizitza hobetzeko helburuak proposatzea. Edonola ere, Elkarbizitzaren Behatokiak, aurreko ikasturteko ebaluazioa oinarrituta hartuta, hurrengo ikasturterako helburuak eta ekintzak proposatuko ditu, eta aurreikusitako ekintzak planifikatu, antolatu eta praktikan jarriko ditu. Ekintza horiek Ikastetxeko Urteko Planean jasoko dira.
- Behatokiko partaideak, urtean, gutxienez hiru bider elkartuko dira ebaluazio bakoitzaren bukaeran.
- Partaideak:
 - Ikasleak
 - Gurasoak
 - Irakasleak
 - Zuzendariondokoa

- Orientatzailea
- Garraio eta jantokiko arduraduna

5.2 Elkarbizitza Batzordea

Ikastetxean prebentziotik prebentziorako bideari ekiteko bitartekoa da. Jazarpena ekiditeko erarik eraginkorrena prebentzioa dela jakinik, ezinbestekoa da ikastetxeen eskuetan jartzea bizikidetza positiboa eraikitzen laguntzen duten egiturak, antolatzeoko neurriak, metodologia-hautuak, curriculum-garapenak, estrategiak eta tresnak.

Funtzioak honako hauek izango dira:

- Behatokiaren onespena jaso beharko duen Elkarbizitza plana eratzea.
- Behatokian jasotako iradokizunak aintzat hartzea.
- Ikasleen ordezkarien iradokizunak aintzat hartzea.
- Ikastetxean bizikidetza positiboaren esparruan garatu beharreko ekintzak/jarduerak planifikatzea eta burutzea.
- Ekintza horien koordinazioa egitea, zuzentzea eta ebaluazioa gauzatzea.

Elkarbizitza Batzordearen kideak hurrengoak izango dira:

- Ikasketaburu-ordea
- Orientatzaileak (2)
- Zuzendariondokoa
- Lanbide heziketako irakasle bat
- Jantoki eta garraio arduraduna
- Irakasle bat
- Ongizate arduraduna

5.3. BAT taldea

Bizikasi ekimenak ikastetxe bakoitzean BAT (Bullyingaren eta ziberbullyingaren Aurkako Taldea) egitura sortzea ebazten du, elkarbizitza batzordea osatzen duten kide berberak osatua.

Talde horrek koordinatuko du jazarpen-kasuak ebazteko prozesua, eta gidatuko ditu, Elkarbizitza Behatokian jasotako iradokizunak aintzat hartuta, ikastetxean bizikidetza positiboaren esparruan garatu beharreko ekintzak.

5.4. Tutore/Irakasle bilerak

Aurreko batzordeek hartutako erabakiak edo pautak plazaratzeko momentuak:

- Astero bilerak orientatzaile, ikasketaburu, ikasketaburuondokoa eta tutoreekin egiten dira hainbat gai jorratzeko.
- Tutore eta taldeko irakasleak beharra ikusten denean ere elkartzen dira.

Ebaluaketa saioak uneak dira ere, elkarbizitzarekin erlazionatutako gaiak tratatzeko.

6. JARDUTEKO IRIZPIDE OROKORRAK

Hezkuntza-komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko irizpide orokor hauek:

- Elkarbizitza positiboren sustapena esparru guztietan eta curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan egingo da.
- Elkarbizitzaren araudiari buruzko erabakiak hartzeko partaidetza lehenetsi behar da.
- Arauak eta erabakiak denon eskubideen eta ongizatearen bermea sustatzen duten elementuak izango dira, eta hala ulertu eta partekatuko ditu komunitate osoak.
- Gatazkak konpontzeko lehentasunezko prozedurak kontziliazioa eta konponketa izango dira.
- Ikasleek gatazkak kudeatzeko duten modua kontuan izango da arlo eta ikasgai guztietako elkarbizitzarako gaitasunaren ebaluazioan.
- Era berean lehentasuna izango dute komunikazio-kanal argi eta eraginkorrak mantentzera bideratutako jarduerak, hala nola, zuzendaritzaren eta klaustroaren arteko komunikazio-kanala, zuzendaritzaren eta irakasleen artekoa, irakasleen eta ikasleen artekoa, irakasleen eta familien artekoa...
- Tutoretza-jarduerako planak ere lehentasuna izango du: banakako tutoretza eta taldeko tutoretza, talde-kohesioa lortzeko estrategiak, hezkuntza emozionala eta gizarte-trebetasunetan.
- Ikasleen artean elkarreragin positiboak sustatuko dituzten metodologiak erabiliko dira, ikasteko modu desberdinei erantzun, eskola inklusiboaren printzipioa errespetatu eta ikasle guztien arrakasta lortuko dutenak.
- Bullying-a eta ziberbullying-a berariaz landuko dira.
- Irakasle, ikasle, familia eta irakasleak ez diren langileei zuzenduriko prestakuntza-planak garatuko dira, gatazkari eta kudeatzeko moduari buruzko hezkuntza-ikuspuntuaren inguruan.

7. ELKARBIZITZA PLANA AURRERA ERAMATEKO JARDUERAK

7.1 Elkarbizitza giro on bat sustatzeko jarduerak. Aniztasuna baliotzat hartzen

Elkarbizitzarako giro egokia aniztasunarekiko errespetuan onarritzen da. Aniztasun hau aberastasun bezala ikusten dugu gure ikastetxean.

Helburu garrantzitsu honekin jarduera desberdin eta ugari planteatzen ditugu ikasturtean zehar:

- Hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko tailerretan genero-aniztasuna lantzen da
- Interkulturalitatea ere gure curriculumean txertatuta dago
- Homofobiaren prebentzioa tutoretza planean txertaturik dago
- Osasun mentala aintzat hartuz antsietateari aurre-hartzeko pautak jasotzen dute ikasleek
- Ikasteko zailtasunak edo hezkuntza premia bereziak dituzten ikaseei erantzun egokiagoa ematen diegu curriculumaren atal batzuen egokitzapenekin
- Hezkidetzeta plana zutabetzat hartuz gizon-emakumeen rolak aztertu eta eztabaidatzen ditugu berdintasunaren bidean
- Gatazka egerak normaltzat hartuz, hauen kudeaketa egoki bat lortzeko jarraibideak ezartzen ditugu
- Adimen-gaitasun handiak dituztenekin ere lan berezi bat egitea planteatzen da, hauetako bakoitzak behar duen curriculum-egokitzapenean oinarrituz
- Hezkuntza sailak martxan dituen protokolo desberdinei ere garrantzia ematen diegu. Klaustroak ikasturte bakoitzaren hasieran hauen inguruko trataera eta informazioa jasotzen du.

7.2 Berandu eskolatzen diren ikasleentzat harrera plana

Ikastetxeko harrera-planan jasotzen dira ikasle berri bat gure ikastetxean sartzen denean egin beharreko lan guztiak: nork eta nola erantzungo dion familiari, zer informazio emango zaion, nork eta nola lagunduko dien gure ikastetxearen funtzionamendua ulertzen...

Harrera-plana, eragile bakoitzaren (zuzendaritza, tutorea, etab.) berariazko eginkizunak alde batera utzita, eskola-komunitate osoaren zeregina da: ikastetxeko pertsona guztiek argi izan behar dute zer egin familia batek eskola-matrikula eskatzen duen lehen unetik, nola aurre egin ikasgelan lehenengo egunari, nola lagundu ikasle berriei eskola-dinamikara egokitzeko prozesuan, etab. Horretarako, beharrezkoa da ikasle berrien familia-egoera ezagutzea: haien bizi- eta eskola esperientziak, hona etorri aurretik gertatu diren gorabeherak ...

7.3 Gatazkeei eta berdinen arteko jazarpenari aurre hartzeko printzipioa: probentzioa

Pertsonei eta taldeei gatazka bati aurre egiteko beharrezko gaitasunak ematea esan nahi du probentzio hitzak. Probentzioa gatazken prebentziotik desberdintzen da. Honen helburua ez da gatazka saihestea, nola aurre egin ikastea baizik.

Probentzioa aintzat hartuz maila bakoitzerako diseinatuta dugun Tutoretza Plana hartuko dugu lan abiapuntutzat. Ikasturte hasiera hasieratik pautak emango zaizkie ikasleei gertatuko diren gatazkei ahal eta era egokienean erantzuna emateko.

Hauek dira gakoak:

- 1- Gatazka elkarbizitzaren egoera sahistezin bat bezala ulertu behar da. Pertsonen arteko harremanetan askotan desadostasunean egongo gara interes eta behar desberdinak izango ditugulako.
- 2- Gatazka perpektiba baikor batetik aztertu behar da. Gizarte batean bizitzen ikasi behar dugu. Ikasteko aukera bezala ikusten dugu gatazka.
- 3- Gatazka baten aurrean bakoitzaren jarrera aztertu behar dugu: agresibitatea erabili, onartu ala asertibitatez jokatu.
- 4- Gatazka konpontzeko era desberdinak landuko ditugu: lehiaketa, egokitzea, ihesbidea. Kooperazioa eta negoziazioa bultzatuko dugu.
- 5- Bakoizaren egoera gatazkatsuak aztertu eta estrategiak diseinatuko dira: laguntza eskatzearen garrantzia azpimarratuko dugu.
- 6- Pertsonen arteko harremanak hobetzeko gaitasunak landuko ditugu: harremanak ikasi, kexatzen ikasi, "ez" esaten ikasi, mesede bat eskatzen ikasi, barkamena eskatzen ikasi.
- 7- Emozio trebetasunak landuko ditugu: emozio baikorrak azaltzen ikastea, akatsak bizitzarako ikasketak bezala onartzen ikastea, iritziz aldatzeko eskubidea onartzea eta bestearen akatsen errua nire gain ez hartzea.

8. ELKARBIZITZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Elkarbizitzako batzordeak, zentroko zuzendaritza taldearekin bat, gutxienez lau urtetik behin, Elkarbizitza Planaren ebaluazioa burutuko du. Urtez urte IUP-ren barruan ikasturtean zehar izandako gorabeherak arakatuko dira.

9.ERANSKINAK

Ikastetxeko elkarbizitza

Dokumentuak:

- [ELKARBIZITZA. Errespetua](#)
- [Borroka baten aurrean.](#)
- [Gatazka ondorengo hausnarketa idatzia \(aldaketekin\).](#)
- [Infografia bullying eta ziberbullying](#)
- [Gatazken kudeaketa. Urratsak.](#)
- [BAT ikastetxea da ZARAOBE.](#)
- [Antsietateari aurre hartzeko estrategiak.](#)

Elkarbizitzarako orientabide orokorrak

Dokumentuak:

- [Eskola jazarpen posible baten aurrean zentroak jarraitu beharreko jokaera protokoloa.](#)
- [Eskolako bizikidetza: izaerahezigarriko disciplina-neurrien multzoa](#)
- [Bullying eta ziberbullying inguruko tailerra](#)
- [Guía aplicación sobre derechos y deberes alumnado](#)
- AJA Zaraobe
- [Recomendaciones ciberconvivencia](#)
- [Ikasgelarako BAT materialak](#)
- [Jazarpena prebenitzeko probentzioa](#)